


# EAEko Demokrazia PATRIARKALA

Jule Goikoetxea, Zuriñe Rodriguez, Lore Etxeberria, Estitxu Garai



## 2. TAULA: IKERTUKO DIREN ALDAGAI ETA KONTZEPTUAK:

### - *Merkantilizazio maila eta mota (merkatuarekiko dependentzia maila):*

- Emakumeek merkatuan duten parte hartze maila (kuantitatiboa)
- Emakumeek merkatuan duten parte hartze mota (kualitatiboa)

### - *Desmerkantilizazioa*

- Emakumeek jasotzen dituzten baliabide eta zerbitzu publikoak merkatuan sartzen ez direnean –zenbatek, nortzuk eta nolako baliabide eta zerbitzuak–.

### - *Familiarizazioa (ongizatea lortzeko emakumeen lan ez-ordainduarekiko dagoen dependentzia maila eta mota):*

- Emakumeek ongizatea lortzeko gizonekiko (familiako gizonen soldatarekiko, baliabideekiko) duten dependentzia

### - *Desfamiliarizazioa:*

- Emakumeek gizonekiko duten independentzia (materialaren) maila. Prozesu hau, sistema kapitalistetan, bi modutan ematen da:
  - *Merkatuaren bidez:* emakumeak merkantilizatuz. Lehenik, merkantilizazio prozesua aztertu behar da, gero desmerkantilizazioa eman dadin.
  - *Ongizate erregimenaren bidez:* geroz eta zerbitzu-egitura-baliabide publiko gehiago, orduan eta desfamiliarizazio eta desmerkantilizazio handiagoa.

- *Kapital edo botere ezberdinak:*

- Kapital ekonomikoa: diru sarrerak eta baliabide materialak (kuantitatiboa).
- Kapital soziala: giza taldeetan parte-hartzea eta kontaktuak – motak eta jarraitasuna (kuantitatiboa eta kualitatiboa).
- Kapital kulturala:
  - Gorpuztutako kapital kulturala: gorpuztutako ezagutza, transferiezina (kualitatiboa) (aztertuko da baina ez da neurtuko).
  - Objektibatutako kapital kulturala: sal daitekeena, kapital ekonomikoa lortzeko (kuantitatiboa).
  - Erakundetutako kapital kulturala: erakundeek zertifikatutako ezagutza (kuantitatiboa eta kualitatiboa).
- Kapital sinbolikoa (kualitatiboa): kapital moduan atzematen ez den kapitala, pentsamendu kategoria positiboen atxikipena - prestigioa eta autoritate sozial, intelektual, politiko eta tradizionalaren oinarri. Biolentzia sinbolikoaren kontrako.
- Biolentzia sinbolikoa: biolentzia moduan atzematen ez den biolentzia, pentsamendu kategoria negatiboen inposizioa, desprestigioa eta desautorizazioa artikulatzen duten kategorizazioak. Subjektu izatetik objektu izateko behar den dispositibo semiotikoa.

- *Patriarkalizioa:*

- Emakume klasearen esplotazioa eta menderakuntza prozesua sistema patriarkaletan

- *Despatriarkalizazioa:*

- Emakume klasearen autonomia, ongizatea, burujabetza eta demokratizazio maila handitzen duen prozesua.


### 3. TAULA: EUROPAKO (mendebaldeko) ONGIZATE ERREGIMENEN KOADRO SINPLIFIKATUA

|   |                            |   |
|---|----------------------------|---|
| Erregimen liberala<br>(Erresuma Batua)                                      | Merkantilizazioa: 4tik 4   | Familiarizazioa: 2-3 (klase sozio-ekonomikoaren araberakoa) |
| Erregimen sozialdemokrata-<br>iparraldea (Norvegia,<br>Finlandia, Islandia) | Merkantilizazioa: 4tik 2   | Familiarizazioa: 1-2  |
| Erregimen kontserbadorea<br>(Alemania, Frantzia)                            | Merkantilizazioa: 4tik 3   | Familiarizazioa: 3-4  |
| Erregimen mediterranearra<br>(Espainia, Italia, Grezia)                     | Merkantilizazioa: 4tik 3-4 | Familiarizazioa: 4  |

*Oharra: 4ko eskala batean, 4 handiena da eta 1 murrizena.*

# LEHEN KAPITULUA LAN ORDAINDUA

**55. GRAFIKOA. ERRENTA ERABILGARRIA, SEXUAREN ARABERA (€/urtean). EUSKAL A.E**



Iturria: EUSTAT

**51. TAULA. ERRENTA ERABILGARRIA, EUSKARA MAILA ETA SEXUAREN ARABERA (€/urtean).  
EUSKAL A.E, 2011**

|   | Emakumezkoak | Gizonezkoak | Bi<br>sexuak | GENERO<br>ARRAKALA |
|---|--------------|-------------|--------------|--------------------|
| Euskaldun alfabetatua                   | 18.162       | 24.313      | 21.067       | 25.3               |
| Neurri batean alfabetatutako euskalduna | 14.600       | 27.797      | 20.689       | 47.5               |
| Euskalduna alfabetatu gabe              | 13.526       | 25.845      | 19.200       | 47.7               |
| Ia euskalduna, alfabetatua              | 16.622       | 26.371      | 21.435       | 37.0               |
| Ia euskalduna, alfabetatu gabe          | 14.974       | 27.801      | 21.405       | 46.1               |
| Ia euskaldun pasiboa                    | 14.718       | 26.894      | 21.000       | 45.3               |
| Erdalduna                               | 11.503       | 24.544      | 17.781       | 53.1               |
| OROTARA                                 | 14.534       | 25.258      | 19.715       | 42.5               |

Iturria: EUSTAT



**50. TAULA. ERRENTA ERABILGARRIA, FORMAZIOA ETA SEXUAREN ARABERA (€/urtean).  
EUSKAL A.E, 2015**

|  | Emakumezkoak  | Gizonezkoak   | Bi sexuak     | GENERO<br>ARRAKALA |
|--|---------------|---------------|---------------|--------------------|
| Alfabetatu gabeak                      | 7.931         | 12.466        | 9.315         | 36,4               |
| Ikasketarik gabeak                     | 8.521         | 15.700        | 11.307        | 45,7               |
| Lehen mailako ikasketak                | 9.114         | 19.004        | 13.133        | 52,0               |
| EGB eta lehen mailako heziketa         | 8.888         | 17.188        | 13.146        | 48,3               |
| Lehen mailako bestelako ikasketak      | 7.701         | 9.138         | 8.393         | 15,7               |
| Lanbide-heziketa                       | 13.620        | 23.299        | 19.249        | 41,5               |
| Bestelako lanbide ikasketak            | 11.410        | 17.332        | 14.980        | 34,2               |
| Oinarrizko eta goi-mailako batxilergoa | 13.235        | 22.691        | 17.535        | 41,7               |
| BUP, COU, ESO, Batxilergoa             | 10.378        | 16.281        | 13.484        | 36,3               |
| Bigarren mailako bestelako ikasketak   | 12.308        | 20.089        | 16.691        | 38,7               |
| Unibertsitate-eskolak                  | 20.891        | 24.840        | 21.875        | 15,9               |
| Eskola teknikoak                       | 17.042        | 28.609        | 26.082        | 40,4               |
| Unibertsitate-fakultateak              | 18.644        | 26.952        | 21.995        | 30,8               |
| Goi-mailako eskola teknikoak           | 16.482        | 26.032        | 23.480        | 36,7               |
| Goi-mailako bestelako ikasketak        | 19.270        | 27.694        | 25.136        | 30,4               |
| Doktoregoak eta graduatuondokoak       | 19.767        | 27.342        | 23.379        | 27,7               |
| <b>OROTARA</b>                         | <b>12.965</b> | <b>20.804</b> | <b>16.731</b> | <b>37,7</b>        |

Iturria: EUSTAT

**49 TAULA. ERRENTA ERABILGARRIA, ESTATUS SOZIOPROFESIONAL ETA SEXUAREN  
ARABERA (€/urtean).  
EUSKAL A.E, 2011**

|                                     | Emakumezkoak  | Gizonezkoak   | Bi sexuak     | GENERO<br>ARRAKALA |
|-------------------------------------|---------------|---------------|---------------|--------------------|
| Goi mailako taldeak                 | 25.226        | 34.832        | 29.604        | 27,6               |
| Bitarteko lanbideak eta enplegatuak | 15.644        | 23.884        | 18.982        | 34,5               |
| Artisauak, nekazariak               | 12.268        | 18.238        | 16.076        | 32,7               |
| Langile kualifikatuak               | 17.621        | 21.408        | 20.951        | 17,7               |
| Langile ez-kualifikatuak            | 9.954         | 16.083        | 13.110        | 38,1               |
| Ez-aktibo menpekoak                 | 8.108         | 17.517        | 11.957        | 53,7               |
| <b>OROTARA</b>                      | <b>12.557</b> | <b>21.155</b> | <b>16.711</b> | <b>40,6</b>        |

Iturria: EUSTAT

**25. TAULA ERRETIRO PENTSIIOAK, ZENBATEKOA ETA SEXUAREN ARABERA. EUSKAL A.E.,  
2005/2017**

|             | Kopuru gordina   |                 |           | Banaketa (%)     |                 |              |
|-------------|------------------|-----------------|-----------|------------------|-----------------|--------------|
|             | Emaku<br>mezkoak | Gizo<br>nezkoak | Bi sexuak | Emaku<br>mezkoak | Gizo<br>nezkoak | Bi<br>sexuak |
| OROTARA     | 127.377          | 220.343         | 347.724   | 100              | 100             | 100          |
| <300        | 6.916            | 3.187           | 10.104    | 5,4              | 1,4             | 2,9          |
| 300-400     | 15.314           | 1.056           | 16.370    | 12,0             | 0,5             | 4,7          |
| 400-500     | 18.081           | 2.736           | 20.817    | 14,2             | 1,2             | 6,0          |
| 500-600     | 6.357            | 2.382           | 8.740     | 5,0              | 1,1             | 2,5          |
| 600-700     | 29.457           | 14.122          | 43.580    | 23,1             | 6,4             | 12,5         |
| 700-800     | 5.338            | 11.775          | 17.114    | 4,2              | 5,3             | 4,9          |
| 800-900     | 4.129            | 7.536           | 11.665    | 3,2              | 3,4             | 3,4          |
| 900-1.000   | 3.885            | 9.092           | 12.977    | 3,1              | 4,1             | 3,7          |
| 1.000-1.100 | 3.706            | 12.600          | 16.306    | 2,9              | 5,7             | 4,7          |
| 1.100-1.200 | 3.516            | 11.490          | 15.006    | 2,8              | 5,2             | 4,3          |
| 1.200-1.300 | 3.198            | 11.915          | 15.113    | 2,5              | 5,4             | 4,3          |
| 1.300-1.400 | 2.739            | 10.910          | 13.649    | 2,2              | 5,0             | 3,9          |
| 1.400-1.500 | 2.377            | 10.182          | 12.559    | 1,9              | 4,6             | 3,6          |
| 1.500-1.600 | 2.206            | 10.041          | 12.247    | 1,7              | 4,6             | 3,5          |
| 1.600-1.700 | 2.190            | 10.629          | 12.819    | 1,7              | 4,8             | 3,7          |
| 1.700-1.800 | 1.924            | 9.167           | 11.091    | 1,5              | 4,2             | 3,2          |
| 1.800-1.900 | 1.783            | 8.807           | 10.590    | 1,4              | 4,0             | 3,0          |
| 1.900-2.000 | 1.707            | 8.634           | 10.340    | 1,3              | 3,9             | 3,0          |
| 2.000-2.100 | 1.768            | 7.654           | 9.423     | 1,4              | 3,5             | 2,7          |
| 2.100-2.200 | 1.686            | 7.570           | 9.256     | 1,3              | 3,4             | 2,7          |
| >2.200      | 9.098            | 48.860          | 57.959    | 7,1              | 22,2            | 16,7         |

Iturria: Espainiako Lan, Migrazio eta Gizarte Segurantzza Ministerioa.

### 43. TAULA. ETXE-BARRUKO LANGILEAK, ASTEROKO LANALDIAREN ARABERA

| Asteko lanaldia<br>orduetan | Langileen portzentaia |
|-----------------------------|-----------------------|
| 40 edo gutxiago             | % 5,76                |
| 41-50                       | % 4,53                |
| 51-60                       | % 14,81               |
| 60                          | % 2,06                |
| 61-70                       | % 29,22               |
| 71-80                       | % 21,40               |
| 81-90                       | % 12,76               |
| 91 edo gehiago              | % 9,47                |
| Ez D/Ez E                   | % 0,92                |

Iturria: Etxeko Langileen Elkartea (ELE) 2018.

### 44. TAULA: ETXE BARNEKO LANGILEAK, HILEROKO SOLDATA GARBIAREN ARABERA

| Soldata atalka          | %     |
|-------------------------|-------|
| 1401€ edo gehiago       | 8,22  |
| 1301 - 1400 €           | 5,35  |
| 1201 -1300€             | 7,41  |
| 1101-1200€              | 13,98 |
| 1051-1100€              | 12,35 |
| 1001 - 1050€            | 12,76 |
| 951 - 1000 €            | 11,11 |
| 901- 950 €              | 5,35  |
| 858,55 - 900 €          | 7,82  |
| 858,55 € baino gutxiago | 8,22  |

Iturria: Etxeko Langileen Elkartea (ELE) Asociacion Trabajadoras del Hogar (ATH) 2018.


# **BIGARREN KAPITULUA LAN EZ ORDAINDUA**

**60. TAULA. ETXEKO LANAREN KONTU SATELITEA EAE 1993-2013**

|                                     | 1993       | 1998       | 2003       | 2008       | 2013       |
|-------------------------------------|------------|------------|------------|------------|------------|
| 1. Oradindu gabeko<br>etxe lanak    | 11.441.137 | 13.392.118 | 15.637.783 | 20.001.264 | 21.342.098 |
| 2. BPG merkatu<br>prezioan          | 25.389.485 | 36.550.072 | 50.381.950 | 69.648.307 | 65.906.376 |
| 3. Etxeko<br>produkzioa /BGP<br>(%) | 46,2       | 36,6       | 31,0       | 28,7       | 32,4       |


Iturria: Eustat. Etxeko lanaren kontu satelitea.

## 19. GRAFIKOA AMATASUN PRESTAZIOAK, HARTZAILEAREN SEXUAREN ARABERA



Iturria: Emakunde Txostena, zifrak, 2015

## 20. GRAFIKOA: SEME ALABAK ZAINTEKO ESZEDENTZIA 2014



Iturria: Emakunde Txostena, zifrak, 2015

### 63.TAULA HETEROPATRIARKATU MENDEBALDAR LIBERALAREN OINARRIZKO KATEGORIAK

| Gizona<br>emakumea ez dena  | Emakumea<br>gizona ez dena   |
|---|--|
| <p>Esentziala<br/>(Adan)<br/>Zintzoa<br/>Norma-la<br/>Subjektua<br/>Burua<br/>Kulturala<br/>Purua<br/>Publikoa<br/>Indartsua<br/>Razionala<br/>Objektiboa<br/>Ausarta<br/>Unibertsala<br/>Autonomoa<br/>Ziurra<br/>Maskulinoa</p> | <p>Akzidentala<br/>(Adanen saihetsa)<br/>Maltzurra<br/>Desbideratua<br/>Objektua<br/>Gorputza<br/>Naturala<br/>Lizuna<br/>Pribatua<br/>Ahula<br/>Irrazionala/emozionala<br/>Subjektiboa<br/>Beldurtia<br/>Partikularra<br/>Menpekkoa<br/>Zalantzatia<br/>Femeninoa</p> |
| <i>Gizonen<br/>Kapital<br/>sinbolikoa</i>   | <i>Emakumeen<br/>Biolentzia<br/>sinbolikoa</i>   |



**66. TAULA. EMAKUMEEN BATAZBESTEKO DENBORA SOZIALA  
(BDS) (O:M) EAE, 1993-2013**

|                          | 1993  | 1998  | 2003  | 2008  | 2013  |
|--------------------------|-------|-------|-------|-------|-------|
| Behar fisiologikoak      | 11:27 | 11:37 | 11:48 | 11:38 | 11:59 |
| Lana eta formakuntza     | 2:04  | 2:26  | 2:35  | 2:49  | 2:22  |
| Etxeko lana              | 4:16  | 3:37  | 3:31  | 3:25  | 3:08  |
| Zaintza                  | 0:27  | 0:26  | 0:29  | 0:36  | 0:36  |
| Bizitza soziala          | 1:04  | 0:58  | 0:52  | 0:36  | 0:44  |
| Aisialdi aktiboa/kirolak | 0:58  | 1:02  | 1:08  | 1:05  | 1:11  |
| Aisialdi pasiboa         | 2:49  | 2:45  | 2:33  | 2:48  | 2:52  |
| Ibiltadiak               | 0:52  | 1:05  | 1:03  | 1:03  | 1:08  |

Iturria: Sagastizabal, 2017. Egileek euskaratua.

**67. TAULA. Gizonen BDSa (o:m) EAE, 1993-2013**

|                          | 1993  | 1998  | 2003  | 2008  | 2013  |
|--------------------------|-------|-------|-------|-------|-------|
| Behar fisiologikoak      | 11:24 | 11:03 | 11:51 | 11:43 | 11:53 |
| Lana eta formakuntza     | 4:15  | 4:16  | 4:14  | 4:00  | 3:16  |
| Etxeko lana              | 1:03  | 1:01  | 1:01  | 1:19  | 1:37  |
| Zaintza                  | 0:12  | 0:14  | 0:12  | 0:19  | 0:21  |
| Bizitza soziala          | 1:16  | 1:08  | 1:04  | 0:41  | 0:45  |
| Aisialdi aktiboa/kirolak | 1:22  | 1:23  | 1:27  | 1:38  | 1:47  |
| Aisialdi pasiboa         | 3:22  | 3:03  | 2:46  | 3:01  | 3:05  |
| Ibiltadiak               | 1:03  | 1:15  | 1:14  | 1:09  | 1:18  |

Iturria: Sagastizabal, 2017. Egileek euskaratua.


**71. TAULA. BDS (0:M) LAN MOTA ETA SEXUAREN ARABERA.  
EAE, 1993-2013**

|                  | Emakumeak          |      |      |      |      |
|------------------|--------------------|------|------|------|------|
|                  | 1993               | 1998 | 2003 | 2008 | 2013 |
| Errutinazkoak    | 3:15               | 2:45 | 2:38 | 2:39 | 2:25 |
| Ez errutinazkoak | 1:00               | 0:52 | 0:53 | 0:47 | 0:44 |
|                  | Gizonak            |      |      |      |      |
|                  | 1993               | 1998 | 2003 | 2008 | 2013 |
| Errutinazkoak    | 0:26               | 0:33 | 0:30 | 0:44 | 0:56 |
| Ez errutinazkoak | 0:33               | 0:35 | 0:39 | 0:34 | 0:41 |
|                  | Feminizazio maila  |      |      |      |      |
|                  | 1993               | 1998 | 2003 | 2008 | 2013 |
| Errutinazkoak    | 7,5                | 5,0  | 5,3  | 3,6  | 2,6  |
| Ez errutinazkoak | 1,8                | 1,5  | 1,4  | 1,4  | 1,1  |
|                  | Ezaugarritze maila |      |      |      |      |
|                  | 1993               | 1998 | 2003 | 2008 | 2013 |
| Emakumeak        | 3,3                | 3,2  | 3,0  | 3,4  | 3,3  |
| Gizonak          | 0,8                | 0,9  | 0,8  | 1,3  | 1,4  |


Iturria: Sagastizabal, 2017. Egileek euskaratua.

# HIRUGARREN KAPITULUA ESTATUA


**76. GRAFIKOA. GIZARTE BABESERAKO GASTUA (% BPG). EUSKAL A.E. eta EUROPA, 2015**




**89. GRAFIKOA: ZAHARTZAROARI BIDERATURIKO GIZARTE BABESEKO GASTUA (% BPG). EUSKAL A.E. eta EUROPA, 2014**




**90. GRAFIKOA: GAIKOTASUNA/OSASUN LAGUNTZARI BIDERATURIKO GIZARTE BABESEKO GASTUA (% BPG). EUSKAL A.E. eta EUROPA, 2014**



**91. GRAFIKOA: UMEZURTZ-ALARGUNTASUNARI BIDERATURIKO GIZARTE BABESEKO GASTUA (% BPG). EUSKAL A.E. eta EUROPA, 2014**



**92. GRAFIKOA: FAMILIA/SEME-ALABEI BIDERATURIKO GIZARTE BABESEKO GASTUA (% BPG). EUSKAL A.E. eta EUROPA, 2014**



Hau da erresidentzia azpikontratatu (pribatizatu) eta Aldundiak kudeatutako (erakunde publiko) arteko diferentzia soldata eta lan orduetan:

Soldata: soldata %40-%60 gutxiago da pribatizatu.


Lan orduak: 106 ordu gehiago lan egiten dute pribatizatu.

| <b>101. TAULA: EAE-KO ERRESIDETZIA PRIBATUEN ETEKINAK</b> |                 |             |  |
|---|-----------------|-------------|--|
|   | <b>Etekinak</b> | <b>Epea</b> | <b>Tokia eta langileak</b>   |
| Gurpo Iguero  | 3.100.000 euro  | 2014-2015   | Eguneko zentro eta erresidentziak (319 langile Bizkaian)           |
| Residencia Caser  | 5.500.000 euro  | 2013-2015   | 100 langile Bizkaian   |
| Sar Quavita   | 2.230.000 euro  | 2012-2014   | 110 langile Bizkaian   |
| Sanitas   | 2.114.000 euro  | 2012-2014   | Loramendi eta Barakaldoko erresidentziak (293 langile Bizkaian)    |
| Aita Menni  | 1.500.000 euro  | 2012-2014   | Bilboko eta Durangoko egoitza (300 langile Bizkaian)               |
| Naguspea  | 850.000 euro    | 2011-2013   | Zamudioko egoitza eta Bilbon eguneko zentroa (80 langile Bizkaian) |

Iturria: ELA sindikatua, 2017




**109. GRAFIKOA: OSASUNARI BIDERATUTAKO GASTUA  
(BPGren %). EUSKAL A.E. eta EB-28, 2015**



Iturria: EUROSTAT, EUSTAT, Eusko Jaurlaritzaren eta Eusko Legebiltzarraren.

**111 GRAFIKOA: HEZKUNTZARI BIDERATUTAKO GASTUA  
(BPGren %). EUSKAL A.E. eta EB-28, 2015**



Iturria: EUROSTAT, EUSTAT, Eusko Jaurlaritzaren eta Eusko Legebiltzarren.

# LAUGARREN DIMENTSIO EREMU SOZIO-POLITIKOA

ERLAZIO PATRIARKALAK EREMU SOZIO-PUBLIKO POLITIKOAN

- 
- *Los dominados aplican a las relaciones de dominación unas categorías construidas desde el punto de vista de los dominadores, haciéndolas aparecer de ese modo como naturales, eso puede llevar a una especie de autodepreciación, o sea de autodenigración sistemática. La dominación masculina, que convierte a las mujeres en objetos simbólicos, cuyo ser (esse) es un ser percibido (percipi), tiene el efecto de colocarlas en un estado permanente de inseguridad corporal o, mejor dicho, de dependencia simbólica. Existen fundamentalmente por y para la mirada de los demás, es decir, en cuanto que objetos acogedores, atractivos, disponibles. Se espera de ellas que sean «femeninas», es decir, sonrientes, simpáticas, atentas, sumisas, discretas, contenidas, por no decir difuminadas. Y la supuesta "feminidad» sólo es a menudo una forma de complacencia respecto a las expectativas masculinas (Bourdieu, 2000:86)*

# Erlazio patriarkalak alderdi, sindikatu, komunikabide eta herri mugimenduetan

- Emakumeen parte hartzea espazio publiko-politikoan
- EAEko berdintasunaren legearen eragina positiboa izan arren, 2001ean hautagai ziren emakumeen portzentajea %43koa zen, 2005ean %53 eta ostera, 2009., 2012. eta 2016. urteetan %51ean egonkortu zen (eta 2016n 103 emakume hautagai gutxiago aurkeztu ziren 2012ko hauteskondeekin alderatuz).

- Zerrenda buruak 2012. eta 2016. urteetan %38ko portzentajearen egonkortzen da, baina oraindik %50etik urrun
- Bizkaia da hauteskunde-zerrendetan buruan emakumeen portzentaje baxuena ageri duen lurraldea (%29) eta Gipuzkoan aldiz gehien (%45),

## 114. TAULA: EUSKO LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEAK. EMAKUME HAUTETSIAK ALDERDI POLITIKOAREN ARABERA. EAE 2001-2016


|                      | 2001      |            | 2005      |             | 2009      |             | 2012      |             | 2016      |             |
|----------------------|-----------|------------|-----------|-------------|-----------|-------------|-----------|-------------|-----------|-------------|
|                      | (Abs.)    | (% E)      | (Abs.)    | (% E)       | (Abs.)    | (% E)       | (Abs.)    | (% E)       | (Abs.)    | (% E)       |
| Aralar               | 0         | 0,0        | 1         | 100,0       | 1         | 25,0        | 0         | 0,0         | 0         | 0,0         |
| EA                   | 0         |            | 0         | 0,0         | 0         | 0,0         | 0         | 0,0         | 0         | 0,0         |
| EAJ-PNV              | 0         | 0,0        | 0         | 0,0         | 16        | 53,0        | 14        | 14,0        | 14        | 50,0        |
| EAJ-PNV/EA           | 12        | 0,0        | 15        | 52,0        | 0         | 0,0         | 0         | 0,0         | 0         | 0,0         |
| EB-B                 | 1         | 36,0       | 1         | 33,0        | 0         | 0,0         | 0         | 0,0         | 0         | 0,0         |
| EH                   | 3         | 33,0       | 0         | 0,0         | 0         | 0,0         | 0         | 0,0         | 0         | 0,0         |
| EH BILDU             | 0         | 43,0       | 0         | 0,0         | 0         | 0,0         | 10        | 12,0        | 12        | 67,0        |
| PCTV-EHAK            | 0         | 0,0        | 6         | 67,0        | 0         | 0,0         | 0         | 0,0         | 0         | 0,0         |
| PODEMOS/AHAL DUGU-IU | 0         | 0,0        | 0         | 0,0         | 0         | 0,0         | 0         | 5,0         | 5         | 45,0        |
| PP                   | 5         | 0,0        | 7         | 47,0        | 5         | 38,0        | 40        | 4,0         | 4         | 44,0        |
| PSE-EE/PSOE          | 5         | 26,0       | 9         | 50,0        | 12        | 48,0        | 50        | 6,0         | 6         | 67,0        |
| UPYD                 | 0         | 0,0        | 0         | 0,0         | 0         | 0,0         | 0         | 0,0         | 0         | 0,0         |
| <b>GUZTIRA</b>       | <b>26</b> | <b>0,0</b> | <b>39</b> | <b>52,0</b> | <b>34</b> | <b>45,0</b> | <b>48</b> | <b>41,0</b> | <b>41</b> | <b>55,0</b> |

Iturria: "Democracia Paritaria en Euskadi" txostena, 2016

- Mireia Zarate, EAJ, EBBko idazkaria eta gazteria eta berdintasun arduraduna:
- Ez diot inoiz gizon bati entzun “jo, zenbat negar egiten dudan batzuetan, goizean atera eta gauean iritsi, umea goizean lo, eta gauean iritsi eta batzuetan gauean lo” ... nik gizon bati ez diot inoiz hau entzun. Agian egingo dute, edo beste era batera egingo dute, baina ez dut inoiz entzun. Emakumeei bai, entzun diet kulpabilitate hori euren buruari botatzen, gizonak ez, uste dutelako euren lana eta funtzioa direla.[...] Nik batzar hauek egiten ditudanean, ez etxe barruan bakarrik, benetan zaila egiten zait, bost emakume etortzeko hamarri deitu behar diet. Gizonak segituan esaten dute “bai, bai”, eta emakumeak pentsatzen jartzen dira “seme-alabak ditut, ordu honetan, zer aportatuko dut...”. Gure buruari gainera mesprezuz planteatzen diogu. Gizon batek ez du planteatzen “nik zer aportatuko dut batzar horretan?” eta emakumeok bai



**116. GRAFIKOA: ALKATETZAN EMAKUMEA DITUZTEN  
UDALERRIAK ETA BIZTANLERIA (%) 2015**



- Eva Abuin, Podemoseko zinegozia Arrasateko udaletxean:
- El 80% son hombres [Arrasateko taldea] y además de avanzada edad (50-60 años). En las asambleas esa mayoría masculina se nota muchísimo, por ejemplo, acaparan los turnos de palabras y mis dos compañeras rara vez cogen turno para hablar. Aunque sí que hemos desarrollado metodologías como turnos de palabra paritarios, para incentivar que las compañeras también hablen. Pero bueno, es un gran reto que tenemos.


- Estibaliz Canto, PSEko zinegotzia Gasteizko Udaletxean:
- A parte de las que estamos en el gobierno, tenemos una secretaria. En el resto, comunicación, coordinación y asesoramiento, son hombres. Estamos hablando de cuatro hombres y una mujer, sin tener en cuenta las concejalías. En un equipo de cinco, la única mujer es la que es secretaria. No [es casualidad] Creo que todos los partidos estamos más o menos en la misma situación. Tampoco me extraña que de los cinco puestos de asesoramiento o de acompañamiento al gobierno que existen, uno sólo esté ocupado por una mujer y sea el de secretaria. [...] En cultura y educación no tengo ningún problema, pero la cartera de deportes es terrible de llevar siendo mujer y joven. En el sentido de que en las reuniones, con hombres casi todos, por no decir el cien por cien, consideran que no tienes ni idea de lo que están hablando.

- Te menosprecian directamente. Socialmente llama la atención que hacienda y urbanismo pueda llevarlo una mujer. Deportes igual no llama la atención como sociedad en conjunto, pero los grupúsculos que hay dentro del deporte sí que lo ven mal y raro. Por ejemplo, he pasado mucha vergüenza yendo a un torneo de fútbol femenino con [los de la Federación y el club].

- También he pasado vergüenza cuando al presentar un proyecto de renovación de un campo con la arquitecta y la ingeniera, que casualidad eran mujeres, los del club dijeron que estaba mal hecho. Evidentemente hay una cuestión de género clara y además, no es soterrada, porque en deportes no es nada soterrado. Es injusto y se da en un porcentaje muy alto. Al final te cansas de eso. [Hay que tomar] medidas como buscar aliadas y aliados, es decir, buscar gente que no tiene esa perspectiva. Igual algún club que trabaje la cuestión de género, clubes femeninos también, y trabajar con ellos, visibilizarles, potenciarles e ignorar completamente al resto; neutralizar esos agentes problemáticos totalmente. No sé si es una buena estrategia, pero es la única que se me ha ocurrido. Por ejemplo, [dejar de ir a los actos de las federaciones]. Entonces eso les fastidia, no lo entienden, se rebotan... Eso es neutralizar.

- Oihana Etxebarrieta, EHBilduko legebiltzarkidea:
- Parte hartzeari eta erabakimenari begira, nik ezberdinduko nuke. Presidentziak oso pegozko figurak dira, egiten duten gauza bakarra (eta ni izan naiz presidentea enplegu eta lan batzordean orain arte ...) delako antolatzea batzordeak eta jendeari hitza ematea, muy de pego. Total que gehienak emakumezkoak gara legebiltzarrean hori egiten dugunak. Alderdiak erabakitzen du nor jarri. Eta kasualitatea, begiratzen jartzen bazara mahaien kopuruak eta, batez ere emakumezkoak gara, baina es el rollo txotxongilo, erabakitze eskubiderik ez dago hor ez baldin bada oso oso gai konkretua [...] Yo ni pinchaba ni cortaba enplegu batzordean egonda, hor atzean batez ere erabakiak hartzen dituztenak gizona zkoak dira. Gure kasuan, batzordeetako bozeramaileak, legebiltzarrean ditugunak, emakumezkoak dira, erabaki politiko bat izan da emakumeak jartzea gehienetan, eta erabakitze eskubidearekin.

### 117. GRAFIKOA: FORU GOBERNUEN OSAERA



Iturria: Emakunde Txostena, Zifrak, 2107

**121. TAULA: EAEN EGOITZA DUTEN FINANTZA-ERAKUNDEETAKO  
PRESIDENTEAK ETA ADMINISTRAZIO-KONTSEILUAK, SEXUAREN  
ARABERA. 2017**

|                | PRESIDENTEA        |                | ADMINISTRAZIO KONTSEILU NAGUSIA |             |           |             |           |
|----------------|--------------------|----------------|---------------------------------|-------------|-----------|-------------|-----------|
|                | Emakumea<br>(abs.) | Gizonak (Abs.) | Emakumeak                       |             | Gizonak   |             | Guztira   |
|                |                    |                | (Abs.)                          | (% h.)      | (Abs.)    | (% h.)      |           |
| BBVA           | 0                  | 1              | 3                               | 23,1        | 10        | 76,9        | 13        |
| Laboral Kutxa  | 0                  | 1              | 1                               | 10,0        | 9         | 90,0        | 10        |
| Fiare          | 0                  | 1              | 4                               | 30,8        | 9         | 69,2        | 13        |
| Kutxabank      | 0                  | 1              | 4                               | 22,2        | 14        | 77,8        | 18        |
| <b>GUZTIRA</b> | <b>0</b>           | <b>4</b>       | <b>12</b>                       | <b>22,2</b> | <b>42</b> | <b>77,8</b> | <b>54</b> |

Iturria: Emakunde Txostena, Zifrak, 2017



- Izaskun Moyua, EAJko batzarkidea eta bozeramailea Arabako Batzar Nagusietan:
- Yo creo que las mujeres, al menos, yo, la experiencia que tengo en mi grupo, es que entramos y salimos. Entran y salen, un poco como el Guadiana. O sea, entran, están quizás una legislatura, se van... A la siguiente legislatura igual vuelven, luego vuelven a desaparecer... O sea, no mantienen una trayectoria lineal como hacen ellos. Creo que hay 2 cuestiones que tienen que ver con esto. Las dificultades objetivas que hay. Una mujer que tiene que trabajar, porque estamos trabajando fuera de casa, tenemos que trabajar en casa, y además nos tenemos que dedicar a estar en las juntas generales. O sea, es el colmo de la doble jornada. O sea, es el colmo de la superwoman... las mujeres que están en la política ... pues ya es una triple jornada. [...] vete a convencer a mujeres para que estén en las juntas administrativas, para que estén en los consejos ...

- Estibaliz Canto, PSEko zinegotzia Gasteizko Udaletxean:
- No. No veo “cargados” a los concejales que tienen familia. El peso familiar tiene un coste mayor a nivel personal en una mujer que en un hombre. Eso también puede ser la causa por la que al final las mujeres terminan abandonando la política.

- Kontua da batzorde, enpresa, zuzendaritza edo erakunde zehatz horietan gehiengoa duten horiek ez dituztela eskuratu duten kapital ekonomiko, sozial eta sinbolikoa galdu nahi, hau da, ez dituzte berain pribilegioak galdu nahi, eta pribilegio patriarkalak dira, gizonek gizon izateagatik dituzten lege pribatuak direlako, normalean, eta oinarrian, jaiotzez duten ezaugarri fisiko baten arabera eskuratutako kapitalak,

- horregatik dira boteregune ekonomiko nagusienetan %100 eta gainontzekoetan, oro har, %80-%70 bitarte, gizonak, bai boteregune ekonomikoetan baita boteregune politikoetan.
- Gure argudio horri ezezkoa emateak, alegia: gizonak botereguneetan daudela gizon izate hutsagatik, ezeztatzen baldin bada, hurrengo argudioa eratortzen da: gizonak botereguneetan daudela merezi dutelako (oso azkarrak direlako, ausartak direlako, arrazionalak direlako, indartsuak direlako, etab. luze bat) eta emakumeak ez daudela gizonak baino atzeratuagoak direlako, irrazionalak, inpartzialak, emozionalak, ahulak, etab. luze bat.

- Betiko argudio patriarkala, horren ezaguna taula bat egin dugula II. Kapitluan, eta argi azaldu dugu argudio horiek biolentzia sinboliko patriarkalaren artikulatzaileak direla
- Alderdi batzuek neurriak jarri dituzte biolentzia sinboliko horren kontra (aurrerago ikusiko dugu sindikatu, mugimendu eta alderdi barneko talde feministetaz hitz egiterakoan). Kontua da, biolentzia sinboliko hori gune politiko guztietan ematen dela, batzuetan era esplizituan, besteetan inplizituan.


## 123. TAULA: EAEKO ENPRESA-ERAKUNDEETAKO PRESIDENTETZAT ETA ZUZENDARITZA-KONTSEILUAK 2017

|                | PRESIDENTEA         |                   | ZUZENDARITZA-KONTSEILUA |             |           |             | Guztira   |
|----------------|---------------------|-------------------|-------------------------|-------------|-----------|-------------|-----------|
|                | Emakumeak<br>(Abs.) | Gizonak<br>(Abs.) | Emakumeak               |             | Gizonak   |             |           |
|                |                     |                   | (Abs.)                  | (%<br>h.)   | (Abs.)    | (%<br>h.)   |           |
| ADEGI          | 0                   | 1                 | 2                       | 13,3        | 13        | 86,7        | 15        |
| CEBEK          | 0                   | 1                 | 5                       | 16,1        | 26        | 83,9        | 31        |
| SEA            | 0                   | 1                 | 0                       | 0           | 14        | 100,0       | 14        |
| CONFEBASK      | 0                   | 1                 | 1                       | 5,3         | 18        | 94,7        | 19        |
| <b>GUZTIRA</b> | <b>0</b>            | <b>4</b>          | <b>8</b>                | <b>10,1</b> | <b>53</b> | <b>67,1</b> | <b>79</b> |

Iturria: Emakunde, erakundeen web-orrialdeetan oinarrituta. 2017ko irailean egindako kontsulta.

## 124. GRAFIKOA: IBEX-EKO ENPRESETAKO PRESIDENTEAK ETA ZUZENDARITZA-BATZORDEAK 2015

■ EMAKUMEAK ■ GIZONAK



**125. TAULA: ERABILERA PUBLIKOKO ELKARTEETAKO ZUZENDARITZA-  
BATZORDEAK GARRANTZIA EKONOMIKOAREN ARABERA SEXUAREN  
ARABERAKO BANAKETA EAE 2017**

|                                   | GUZTIR<br>A  | EMAKUMEAK  |             |             | GIZONAK    |             |              | G-E<br>aldea<br>(%) |
|-----------------------------------|--------------|------------|-------------|-------------|------------|-------------|--------------|---------------------|
|                                   |              | (Abs.<br>) | (% b)       | (% h)       | (Abs.)     | (% b)       | (% h)        |                     |
| Ekonomia aldetik<br>garrantzitsua | 465          | 175        | 37.6        | 24.7        | 290        | 62.4        | 33.4         | 24.7                |
| Ez da garrantzitsua               | 1.064        | 485        | 45.6        | 8,8         | 579        | 54.4        | 66,6         | 8,8                 |
| <b>GUZTIRA</b>                    | <b>1.529</b> | <b>660</b> | <b>43.2</b> | <b>13.7</b> | <b>869</b> | <b>56,8</b> | <b>100,0</b> | <b>13.7</b>         |

Iturria: Eusko Jaurlaritza. Txostena: "¿Participan las mujeres en los órganos de decisión de las entidades sin ánimo de lucro?"



- Aipatu logika patriarkal horri jarraiki, emakumeen parte hartzea handiagoa da gune informaletan, gizonena gune formaletan
- Baina, berriro ere, aldea ez dago gizonek eta emakumeek parte hartze politikoari eskaintzen dioten denboran, baizik eta parte hartze motan: emakumeek haien genero rolaekin zerikusia duten eremuetan parte hartzen dute gehiago, hau da, feminitateak berarekin daramatzan balio eta praktika horietan, hala nola, beste pertsonekin lan egitea eskatzen duten jardueretean, beste pertsonak entzun, lagundu, babestu, etab. dakartzaten jarduerak, eta gizonak, aldiz,

- politika formalarekin erlazio duten jardueretan, eta ekintza ez konbentzionalak esaten zaien horietan (nahiz eta izena ez izan egokia hala erabiliko dugu gai honen literaturan horrela esaten baitiote) manifestazioetan eta grebetan parte hartzea, adibidez.

*Informazioa eta erabakimena: gune formalak  
eta informalak*

- legebiltzarra gune formala da baina bertan gune informalak sortzen dira, alderdietan bezala.
- Espazio horiek ez dira generoarekikoitsu, eta tradizionalki, espazio formaletako gune informaletan hartu izan dira erabakiak antolakunde askotan, baina gune informaletarako sarbidea are zailagoa da emakumeontzat.

- Ainhoa Beola, EHBilduko Programa zuzendaria eta batzarkidea Gipuzkoako Batzar Nagusietan:
- [Espazio formalak eta informalak] mistoak dira osaerak. Baina logika patriarkala da. Gune formaletan ere emakumeak egon arren ez du esan nahi logika parekidea ematen denik. Hori ez da horrela... [EHBilduko] Talde feministatik bere garaian proposamena egin genuen: batzarretan emakume eta gizonek hitz egin beharko luketela, denborak mugatu egin behar zirela betiko gizonek denborak akaparatu ez zitzaten, ordutegiak ere moldatu behar zirela gizon zein emakumek parte hartu ahal izateko, edozein jarduera publikotan haurtzaindegi zerbitzuak izango genituela jakitun batzuetan gizonak ere beraien umeeekin etortzen badira ere, imaginario kolektiboan emakumeei zuzendutako zerbitzu gisara hartzen dela hau oraindik orain. [...]

- Estefanía Beltrán de Heredia, EAJ, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailburua:
- Mi primera gran pelea fue que la información se tratara en espacio formales. En un sector, como casi todos, tan masculinizado, la primera pelea fue que se tratara en espacios formales, porque si no puede ocurrir que la reunión se alargue, y siguen tratando el tema cenando, pero tu no te puedes quedar a cenar, por diversas razones, y al siguiente día te dicen que se incluya en acta lo que [ellos] han decidido cenando.
- Elkarrizketa zati hau atzerago ere jarri dugu baina gogora ekarri nahi genuen atal honetan, berriro ere.

# **Patriarkatuaren kontrako estrategiak eta antolaketa politikoa**

**FORMAZIOA**



- Formazioari dagokionean, aldea dago erakunde publikoen eta antolakundeen artean. Baina, berriro ere, ez da kantitate kontua soilik, derrigortasun maila kontuan hartzea ezinbestekoa da, horrek ematen baitio kategoria politiko-estrukturala, hau da, formazioa ez denean gizabanako baten borondatean oinarritzen (hezkuntza publikoa borondatean oinarritzen ez den bezala).

- Derrigorrezko baliabide publiko eta sistematikoak jarriz bihurtzen dira eskubide formalak eskubide material izatera. Ongizate kolektibo eta publikoa (edo eskubidea, hezkuntza eta osasungintza publikoa) borondatearen esku utziko balitz, ez litzateke ongizate kolektibo eta publikorik (eskubiderik, hezkuntza eta osasungintza publikorik) egongo (Goikoetxea, 2017b).

ERRESISTENTZIAK

- Erresistentzia mota ezberdinak daude, inplizituak, esplizituak, barnetik datozenak, kanpotik, goitik eta behetik. Erresistentzia jarraiak, antolatuak eta antolatugabekoak, egiturazkoak, estrategikoak, eta jakina, erresistentzia legalak, formalak eta informalak. Alderdi eta sindikatuera pasa baino lehen, ekarri dezagun Gobernuko Segurtasun Sailaren eta estatuko justizia aparatuen arteko talka, ikusteko nola gurutzatzen diren kanpo (justizia sistema) eta barne erresistentziak (eragile indibidualak eta sindikatuak), goitik (epaiak, legeak eta justizia aparatuek) eta behetik (sindikatuetatik) datozenak.

- Estefanía Beltrán de Heredia, EAJ, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailburua:
- Uno de los retos que marcamos era poner diversas medidas para aumentar la participación de las mujeres, que no han podido prosperar. En un momento determinado se establecen cuotas reservadas a mujeres, eso se recurre, lo recurren otros aspirantes hombres o incluso sindicatos ... se recurre, se establecen los cupos en dos momentos de la Ertzaintza, en los primeros años, y se recurre y los jueces se muestran en contra de esos cupos. Ahora estamos con la modificación de la ley de policía vasca y queremos medidas positivas en aquellos casos que no se llegue al 33%. El gobierno socialista también puso medidas, cupos, y fueron recurridas, creo que en el 2011, entre el 2009 y el 2012. Hay que establecer una base legal, una ley de policía que recoja esas medidas. Ahora en el caso de que haya misma puntuación, hay que seleccionar a la mujer. Pero lo que queremos es establecer medidas para que haya un porcentaje mayor de mujeres.

-

- Ainhoa Beola, EHBilduko Programa zuzendaria eta batzarkidea Gipuzkoako Batzar Nagusietan:
- Beldurra dago. Beldurra dago batzuen aldetik, informazio falta edo ezjakintasunaren ondorioz. Jende horri esplikatu behar zaio. Eta gero erresistentziak daude, ze jakina, logika patriarkala aldatzen dugun heinean, logika feministari bide emateko, ba botere espazioak aldatu egin behar dira. Aldaketen aurrean beti sortu ohi dira erresistentziak. Denbora honetan [EHBilduko Talde Feminista] Aktiboena izan da saretuen geundelako. Ehun eta piko emakume, EHBildukoak, saretuta geunden jadanik duela pare bat urte.

- Erabakiak hartzeko moduak ere aztertzen gabiltza, askotan iritzi ugari mahai gainean jarri arren emakume zein gizonen aldetik, hainbatetan aintzat hartzen den iritzi nagusia gizonezkoarena baita. Bestetik gure proiektuan gauden emakumeok oso izaera potentea dugu, eta hor tentsioak sortzen dira nola ez.[...] Espazio informaletan gune mistoak daude. Gune informalak daude mahai politiko batek erabaki bat azkar hartu behar duenean, edo emergentzia egoera bat ematen denean, hor ez dira mahai politikoko hogeit lagunak elkartzen, eta presazko espazio horietan bi gizon eta bi emakume daude. Baina gune hori bera sortua egotea logika patriarkalen barruan sartua egotea ere bada. Izan ere gune itxi bat baita. Hori horrela da. [...]

- Nik uste emakumeok erraztasun gehiago dugula informazioa zabaltzeko eta partekatzeko. Información es poder, eta premisa horrekin, patriarkatuaren logikak ez du askatu nahi izaten duen informazioa. Logika feministatik gure ardurapean gaiak ditugunean, informazioa antolatuagoa, partekatuagoa eta sistematizatuagoa izaten ari dela dudarik ez dut.



- Izaskun Moyua, EAJko batzarkidea eta bozeramailea Arabako Batzar Nagusietan:
- [EAJko emakumeen gunea] O sea, no tenemos establecido un espacio formal. Yo creo que un espacio informal sí ... Yo creo que estamos muy alerta. Pues alerta a cuales son las resistencias, por ejemplo. Las resistencias del sistema patriarcal que aparecen sí o sí. En cualquier momento, ¿no? "Pues yo no creo que esto esté sujeto a una discriminación positiva" o "Yo esto no lo entiendo muy bien". "Bueno, pues ya te voy a explicar yo". Es decir, alerta en el sentido de que bueno, hay resistencias a avances que tienen que ser continuamente contraargumentados... yo creo que hay un trabajo de conocimiento. Luego a veces también decimos "¿cómo no lo saben todavía? Si vamos 200 años con esto, y cómo todavía no han aprendido, ¿no? [...]"

- Estibaliz Canto, PSEko zinegotzia Gasteizko Udaletxean:
- No es que haya habido una resistencia ante el tema de igualdad, sencillamente, cuando se plantean los temas, el de igualdad no está encima de la mesa. Además, siempre hay algún “comentario chiste”, que se cree gracioso, que te hace algún compañero al introducir este tema. Pero bueno, también hay gente que te apoya y te empuja.
-

- Arantza Urkaregi, EHBilduko batzarkidea Bizkaiko Batzar Nagusietan:
- Nik uste bi motatako erresistentziak daudela: gizonezkoena, diotelako hobeto konponduko dugula dena hitz egiten, beldur hori. Oso zabaldua dagoena da, gainera, kuotek ez dutela konpontzen, baina ez badaude, gutxiago oraindik. Hori bat. Eta gero, nik uste partiduen erresistentziak ere badaudela... Azken finean, EHBilduk badio batzorde hori parekidea izan behar dela, behartzen ari zara partidu horiei emakume bat jartzera, eta hor ere talkak daudela uste dut. [Erakundeen erresistentzia] Orain adibidez Aldundia eztabaidatzen ari da zaintzaileen estatutua. Gizarte ekintza ari da horretan. Dauden fitxeroetan dio: genero ikuspegia, hutsik. Zaintzak ez badu genero markarik zer ez du izango. Zein da orduan berdintasun sailaren jarrera? Hori gizarte ekintza dela. Bai, gizarte ekintza da, baina zeharkakotasunez lantzen ez bada....

# PROPOSAMEN OROKORRAK

# 1. Estatu federal ez patriarkala

- boterea, eta beraz, kapitalen produkzioa eta banaketa lurraldeka konstituzionalizatuko da.
- Lurralde bakoitzaren barruan, subsiedariedade politikoa aplikatuko da, erakunde txikienak boteretuz, haien eskumenak handituz herritarrengandik gertuen dauden guneetara: auzo sindikatu eta antolakundeak behar dira horretarako, udalen azpitik gobernu maila berri bat barneratuz, herritarren antolakuntza auzoetatik egitea ezinbestekoa baita.
- Udalek eskumen eta finantzazio gehiago edukiko dute herritarrengandik egun gertuen dauden erakundeak direlako. Gizonak, boterea eta kapitala pilatzen diren guneetan gehiengoa dira, hortaz, botereguneetatik urrunen dauden eta herritarrengandik gertuen dauden gune horiek, adibidez, auzo elkarteak eta antolakunde sektorialak, beren eskumena eta erabakimena konstituzionalki handitu beharko dute, demokrazia parte-hartzaile antipatriarkala egituratzeko eta mamitzeko.

## 2.Zaintza lana eta lan mota ororen antolaketa:

- Jaurlaritzak eta Aldundiek haien eskumenak ber-antolatuko dituzte ongizatea, eta, beraz, produkzioa, aberastasuna eta zaintza konstituzionalki, geografikoki eta instituzionalki banatua egon dadin.
- Gainbalioa ez zaio soilik produktu zehatz batzuei atxikiko orain arteko irizpideak jarraituz (lan indarraren prezioa ezingo dute gizon talde batzuk ezarri orain bezala), baizik eta egindako lana (ordaindua eta ez ordaindua) era berean banatuko da haien egiturazko eraldaketa lortu arte: lan ordainduak ez du inoiz lan ez ordaindua gaitutiko, ez denboran ezta balioan ere eta banakako guztiek lan ordaindu eta ez ordaindu antzekoa egingo dute (ezin da lan ordainduan emandako denbora lan ez ordaindutik kendu) hauen arteko zatiketa desagertu arte desmerkantilizazio eta desfamiliarizazioaren bidez.

- Zaintza derrigorrezkoa eta txandakakoa izango da, guztiok zainduko dugu eta erakunde publikoek bizitza osoan zehar behar dugun zaintza eta tratamendu espezifikoak bermatu beharko dituzte.
- Proposatutako sistema horrek berrikuspena eta ebaluaketa jarraia beharko du, ez dadin merkantilizazioa izan kapital sozial, ekonomiko eta sinbolikoaren iturri, eta lan desberdinen kategorizazioa aldatze aldera nahiz lan horiek sortzen dituzten kapital ezberdinen banaketa bidezkoagoa ziurtatze aldera. Hori da epe-ertainera merkantilizazioa mugatu eta, epe-luzera, neutralizatzeko bidea.

- Hortaz, konstituzio federal eta lege organikoek ez dute soilik herrialdeen eskumen finantzario, ekonomiko, politiko eta instituzionala kontuan hartuko baizik eta lanaren eta beraz kapital ezberdinen (ezagutza, aberastasuna, autoritatea eta osasuna barne) produkzioa eta birbanaketa.
- Horrek politika publikoak egiteko era aldatzera eramán beharko luke, subsidiariedade politikoa jarraituz, behetik gora erabakiko liratekelako orain goitik behera eta gizon gutxi batzuek erabakitzen dutena.
- Azkenik, erabaki horiek deszentralizatuak baino koordinatuak izango dira, demokraziaren arerioa den kapitalismo finantzario, neoliberal eta patriarkala deszentralizatu delako behealdean, eta hertsiki koordinatua goian (korporazio eta monopolioen eskutik).



### 3. Konsoziazionismo feminista:

- Erabakigune oro parekidea izango da. Erabakigune politiko eta erakundetu guztietan gizon bakoitzeko emakume bat egongo da, despatriarkalizazio prozesuak abiadura hartu arte.
- Zuzendaritza oro parekidea izango da. Gobernuko sail guztiek sailburu bikoitza izango dute (emakumea eta gizona), eta kasuan kasu, batzorde hirukoitz/anizkoitz lotesleak egongo dira (adin, jatorri, aniztasun sexual, funtzional eta beste ardatz batzuk kontuan hartuz, eremuaren arabera, tartean, euskaldunen presentzia eta erabakimena ziurtatuko duten mekanismo lotesleak) demokrazia bermatze aldera.

- Erakunde guztien ordezkaritza bikoitza izango da (gutxienez), hortaz, lehendakaritza beti izango da bikoitza. Horrek lagunduko du, gerora, parte hartze politiko ezberdinen nolakotasuna aldatzen, esan baitugu kantitatearekin soilik ez duela balio, hau da, ez da nahikoa emakumeen presentzia baizik eta joko erregela (espazio, gune, baliabide, xede, arau, legedi, konstituzio) feministak martxan jartzea. Horretarako, eredu desberdinak daude ardatz bakoitzerako, , tartean Kurdistaneko eredua edo Belgikakoa.

## 4. Beto eskubidea emakumeen gune autonomo eta ez mixtoetarako:

- Despatriarkalizazio prozesuak abiadura hartzeko, eta estatugintza federal feministara ailegatzeko (inoiz amaitzen ez den prozesu bat da estatugintza, ez egoera estatiko bat), hau da, demokratikoa izango den sistema politiko bat eraikitze bidean, beto eskubideak aurreikusi behar dira. Orain gizonek, oro har, eta patronalak zehazki, duten beto eskubidea demokratizatuko da, emakumeei eta langileei emanaz (ikus sindikalgintzaren inguruan esan duguna).
- Horretarako emakumeen gune ez mixtoak sortuko dira elkarte eta antolakunde mixto guztietan: batetik, alderdi, sindikatu, eskola, unibertsitate, lantoki eta elkarte publiko eta pribatuetan, bestetik, epe-ertainera publikatu eta/edo kooperatibizatu beharko den egungo eremu ekonomiko pribatuan. Adibidez: 5-10 enplegatu baino gehiagoko enpresa orok sortu beharko ditu horrelako gune ez mixtoak.

- Egungo legebiltzar liberal eta patriarkala iraultzeko helburuarekin, legebiltzar ez mixtoa osatzea proposatzen da, behin behinekoa, eta legebiltzar mixtoaren (egun dugunaren) barruan mixtoak ez diren batzorde ezberdinak egiten diren lege eta politika publikoen inguruko erabakimena berreskuratu dezaten emakumeek.
- Legebiltzar eta batzar berriak sortzea legeak proposatzeko: lehen gobernu mailan, langilez osatutako auzo elkarte eta auzo sindikatuen legebiltzar eta batzarrak, oinarrian, eta gero eskala ezberdinetan antolatutako lurralde (lege) biltzarrak (auzoka, udalerrika, eskualdeka, lurraldeka, etab.) emakumeen betoa bermatuz eskala eta maila guztietan.